

Kimetz Furundarena Agirre

D maila • 1 saria

Kimetz Furundarena Agirre naiz eta Beasaingo Ikastolan DBHko lehen maila egiten ari naiz. Lagunekin egon, irakurri, kirola ikusi, musika, bertsoak...denbora pasa ugari izaten ditut aukeran. Azken urtea berezia izaten ari da arlo askotan eta ilusioz jaso ditut sari hauek. Nire ondotik joan zaizkidan horiei eskaini nahi diet bereziki.



Doinua: Ihesa zilegi balitz

GURE AMETS IKUSEZINAK

Denek diote: lotuta daude
kirola ta osasuna,
geldi egonda gaixotzen zaigu
gorputza eta garuna.
Hori entzunda, kirola egiten
pasatzen dugu eguna
ez dakit ez ote den gehiegi
honek duen oihartzuna.

Txikitan hasi ginen eskolan
elkarrekin kirolean,
entrenamendu eta partidak
dena giro ederrean.
Ederra zirudien honek, bai,
baina ni han, egonean,
aulkian ibili behar honek
uzten nau aldamenean.

BERTSOAK

Beti sinistarazi digute
denok berdina garela,
gizartean ditugun aukerak
denon eskura daudela.
Urte hauetan konturatu naiz
hori ez dela horrela,
gure ametsak gizarte hontan
ikusezinak direla.

Taldeak egiteko garaian
dago ezaugarri pila,
ezinduokin egiten dute
aparteko borobila.
Zergatik ezin dugu osatu
denok batera kuadrilla?
oinez ez ibiltzeak ez baitu
egiten bat inutila.